



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

Espediente kodea: 2019IAKU0010

2019IAKU0010  
H19/0061/BATZARRA/2019

**2019KO URRIAREN 21EAN EGINDAKO**  
**EZ OHIKO BATZARRAREN AGIRIA.-**

=====

**ACTA DE LA SESION**  
**EXTRAORDINARIA DEL PLENO DEL**  
**DIA 21 DE OCTUBRE DE 2019.-**

=====

**ALKATEA / ALCALDE**

HARITZ ALBERDI ARRILLAGA

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

ITZIAR LARRAÑAGA ARREGI  
IBON GEREKA BALENTZIAGA  
ANE LOIDI LEUNDA  
EKAITZ ESTEBAN PERTUSA  
NAHIA ITURBE ZUBIZARRETA  
AITOR URRESTI MARTINEZ  
M.ITZIAR ETXARTE OTEGI  
JON ELICEGUI AIZPURU  
ELENA URRESTI ARRUTI  
GEMA MARRERO RUEDA

**EZ BERTARATUAK / NO ASISTENTES**

**IDAZKARIA / SECRETARIO**

IÑAKI SAINZ PAREDES

**Getarian, aurrez egindako deia, 2019ko urriaren 21ean, arratsaldeko 19:30etan, Udalbatzarra biltzen da ez ohiko saioan, goian aipatzen diren zinegotziak, Haritz Alberdi Arrillaga Alkatearen lehendakaritzapean.**

**Bertan aurkitzen da Udalaren idazkaria den Iñaki Sainz Paredes eta zinpean ekitaldiaren berri jasotzen du.**

En el salón de actos de , a las 19:30 horas del día de 21 de octubre de 2019, se reúne el del Ayuntamiento en sesión extraordinaria, previa convocatoria cursada al efecto, con la asistencia de los Concejales que se expresan, bajo la presidencia del Alcalde Haritz Alberdi Arrillaga.-

Asiste y da fe del acto el Secretario de la Corporación Iñaki Sainz Paredes.



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

## **GAI ZERRENDA**

### **ANTOLAKETA GAIA:**

**OSOKO OHIKO BILKUREN  
MAIZTASUNA.**

## **ALDERDI ERABAKITZAILEA**

**LEHENA:2019/11/10eko  
HAUTESKUNDE OROKORRETAN  
MAHAIKIDE IZAN BEHAR DIRENEN  
ZOKKETA.**

**BIGARRENA. HONDARTZETAKO  
SOROSPEN ZERBITZUAK  
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK  
KUDEATZEA ESKATZEKO MOZIOA**

**HIRUGARRENA. 2020. URTEAN  
ERAGINA IZAN DEZATEN  
ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA  
ETA DOIKETA EGITEKO IRIZPENA.**

**LAUGARRENA.- 2018. EKITALDI  
EKONOMIKOKO KONTU  
OROKORRAREN ONARPENA**

## **ORDEN DEL DIA**

### **CUESTION DE ORGANIZACIÓN:**

**PERIODICIDAD DE LAS SESIONES  
PLENARIAS ORDINARIAS.**

## **PARTE DISPOSITIVA**

**PRIMERO. SORTEO DE LOS MIEMBROS  
DE LAS MESAS DE LAS ELECCIONES  
GENERALES DEL 10/11/2019.**

**SEGUNDO. MOCION SOLICITANDO QUE LA  
DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA ASUMA  
EL SERVICIO DE SOCORRO DE LAS  
PLAYAS.**

**TERCERO. DICTAMEN DE APROBACIÓN Y  
ADECUACIÓN DE LAS ORDENANZAS  
FISCALES CON EFECTOS PARA EL AÑO  
2020.-**

**CUARTO. APROBACIÓN DE LA CUENTA  
GENERAL DEL EJERCICIO ECONÓMICO  
DE 2018**

### **ANTOLAKETA GAIA: OSOKO OHIKO BILKUREN MAIZTASUNA**

**2019ko uztailaren 10eko bileran,  
bestek beste, Osoko ohiko bilkuren  
maiztasuna eta egutegia finkatu zen.**

**Lehentasunezko eguna asteazkena  
izan ordez asteartea izatea eskatu**

### **CUESTION DE ORGANIZACIÓN: PERIODICIDAD DE LAS SESIONES PLENARIAS ORDINARIAS.**

En la reunión del 10 de julio de 2019,  
entre otras cuestiones se acordó la  
periodicidad de las sesiones ordinarias y  
su calendario.

Algunos concejales han solicitado que  
en lugar de celebrarse con preferencia



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

**dute zinegotzi batzuk, bere zeregin profesionalengatik hobeto datorkielako.**

los miércoles se celebren los martes, porque les viene mejor por sus actividades profesionales.

**Horren arabera Alkateak Udalbatzari honakoa proposatu dio: Udalbatzak ohiko osoko bilkura egitea bi hilean behin, hileko azken astearen barne, asteartetan lehentasunez, arratsaldeko zazpit'erdietan.**

Seguidamente el Alcalde propone a la Corporación que ésta celebre Sesiones Ordinarias cada dos meses, la última semana del mes, con preferencia los martes, a las diecinueve horas y treinta minutos.

**Eta bozketa egin ondoren, honako emaitza gertatu da:**

Y tras votarse, resulta el siguiente resultado:

**Alde bozkatu dute EH Bilduko 6 zinegotziek eta EAJko 5 zinegotziek.**

Votan a favor los 6 concejales de EH Bildu y los 5 concejales del PNV.

**Bozketaren ondorioz, ahobatez aldaketa onartua geratu da.**

Conforme al resultado, por unanimidad, queda aprobado el cambio propuesto.

**ALDERDI ERABAKITZAILEA:**

**PARTE RESOLUTIVA:**

**1.- 2019/11/10EKO HAUTESKUNDE OROKORRETAN MAHAIKIDEAK IZAN BEHAR DIRENEN ZOZKETA.-**

**1.- SORTEO DE LOS MIEMBROS DE LAS MESAS DE LAS ELECCIONES GENERALES DE 10/11/2019**

**Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Legearen 27. artikulua xedatutako betez, ezarritako legezko formalitate guztiak beterik, 2019ko azaroaren 10ean egingo diren Hauteskunde Orokorreko mahaikideak diren lehendakari zein bokalak, eta bakoitzeko ordezkioak, aukeratzeko, zozketa egiten da, honako emaitzarekin:**

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley de Régimen Electoral General, se procede a efectuar el sorteo público para designar al Presidente y Vocales, así como los correspondientes suplentes de los mismos que han de conformar las Mesas Electorales para las Elecciones Generales, a celebrar el 10 de noviembre de 2019, con el siguiente resultado:



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

01 Barrutia. 001 Atala. Mahai Bakarra                      Distrito 01. Sección 001. Mesa Única.

Titularrak	NA/DI	Titulares
Lehendakaria:	15960021E	Presidente
Lehendabiziko Bokala:	72525349R	Primer Vocal
Bigarrengo Bokala:	72444359V	Segundo Vocal
Ordezkoak		Suplentes
Lehendakariaren 1.:	44143001K	1º de Presidente
Lehendakariaren 2.a:	34107771J	2º de Presidente
Lehendabiziko Bokalaren 1.:	72444349F	1º del 1º Vocal
Lehendabiziko Bokalaren 2.a:	44145380P	2º del 1º Vocal
Bigarrengo Bokalaren 1.:	72444371Y	1º del 2º Vocal
Bigarrengo Bokalaren 2.a:	72444452H	2º del 2º Vocal

01 Barrutia. 002 Atala. A Mahaia                      Distrito 01. Sección 002. Mesa A

Titularrak	NA/DI	Titulares
Lehendakaria:	72458780V	Presidente
Lehendabiziko Bokala:	44152930Z	Primer Vocal
Bigarrengo Bokala:	34107499V	Segundo Vocal
Ordezkoak		Suplentes
Lehendakariaren 1.:	72435570Z	1º de Presidente
Lehendakariaren 2.a:	78889940D	2º de Presidente
Lehendabiziko Bokalaren 1.:	44979495M	1º del 1º Vocal
Lehendabiziko Bokalaren 2.a:	15988292A	2º del 1º Vocal
Bigarrengo Bokalaren 1.:	72540225L	1º del 2º Vocal
Bigarrengo Bokalaren 2.a:	72458759L	2º del 2º Vocal

01 Barrutia. 002 Atala. B Mahaia                      Distrito 01. Sección 002. Mesa B

Titularrak	NA/DI	Titulares
Lehendakaria:	44333503Z	Presidente
Lehendabiziko Bokala:	44145926W	Primer Vocal
Bigarrengo Bokala:	44670714E	Segundo Vocal
Ordezkoak		Suplentes
Lehendakariaren 1.:	15950231F	1º de Presidente
Lehendakariaren 2.a:	72458800Z	2º de Presidente
Lehendabiziko Bokalaren 1.:	34098962J	1º del 1º Vocal
Lehendabiziko Bokalaren 2.a:	72569509R	2º del 1º Vocal
Bigarrengo Bokalaren 1.:	72545526F	1º del 2º Vocal
Bigarrengo Bokalaren 2.a:	44171790Z	2º del 2º Vocal



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

**2.- HONDARTZETAKO SOROSPEN ZERBITZUAK GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK KUDEATZEA ESKATZEKO MOZIOA.-**

**Alkateak 2019ko urriaren 16an udalean sarrera izan zuen idatziaren berri ematen du (1958 Zkia) eta Ibon Gereka zinegotziak irakurri egin du eta arrazoibideak azaldu.**

**Idatzian, kostaldeko herriek eskaintzen duten sorospen zerbitzuengatik eta hauen gastuagatik, Udalari honako erabakiak hartzea proposatzen zaizkio:**

1. Getariako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzen dugun udalokin elkarlanean, beharrezko kudeaketa egin dezala, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak aldundiak kudea ditzan.
2. Getariako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzen sorospen zerbitzua udalek kudeatzen duten bitartean, diru-laguntza lerro bat ireki dezala horien % 100ko finantziazioan laguntzeko.
3. Getariako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzeko behar diren kontratu edota hitzarmenetan, 11/2014 Foru Araua ezartzeko. Horren bidez, foru sektore publikoko kontratazioan, erosketara publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak berma ditzan.
4. Getariako Udalak mozio honen berri emango die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei.

**EAJren izenean Aitor Urrestik dio, batzordean esan zuen bezala, mozioa aurkeztu baino lehen, aurretiko lanak egin behar direla, testuan zehaztasun falta ikusten du, orokortasunak azaltzen ditu, gainera Aldundiarekin zer planteatuko zaion ez dakigu, beste herriekin zer landu den, udal gobernuak nola garatu behar duen erabaki hau ez dakitela, sorosleen**

**2.- SEGUNDO. MOCION SOLICITANDO QUE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA ASUMA EL SERVICIO DE SOCORRO DE LAS PLAYAS.-**

El Alcalde de cuenta del escrito presentado en el Ayuntamiento el 16 de octubre de 2019. (Nº 1598) el concejal Ibon Gereka ha procedido a su lectura y a explicar las razones que lo motivan.

En el escrito, en relación a los servicios de socorrismo que prestan los municipios costeros y su coste, se propone al Ayuntamiento la adopción de los siguientes acuerdos:

En nombre del PNV Aitor Urresti dice, que como dijo en comisión, antes de presentar la moción hay que realizar trabajos previos, observa falta de concreción en el texto, que expone generalidades, además dice no saber lo que se planteará a la Diputación, qué se ha trabajado con otros municipios, que no saben cómo desarrollará el gobierno municipal este acuerdo, cuál sería el



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

erregimena zein izango litzateke eta finantzaketa etab. Hala ere, Udalari suposatzen dion karga ekonomikoagatik, mozioak dionarekin desadostasunean ez daudelako, bozketan abstenitu egingo direla iragarri du. Beraz, langileen subrogazioa egongo den, Gurutze Gorriak eskainiko ote duen zerbitzua, Foru Fondoaren bidez ordainduko ote zen eta halako gauzei buruzko informazioa eskuratzea eskatu du.

EH Bilduren izenean, Ibon Gerekak eskerrak eman dizkio abstentzioagatik, Getariaren inbertsio ahalmenarentzat ikaragarri izango zela gastu hau arintzea, beste herrieekin batera landuko dela proposamena eta hondartzen mahaira eramango dela.

Eta besterik gabe bozketa egiten da, honako emaitzarekin:

- Alde bozkatu dute EH Bilduko 6 zinegotziak.
- Abstenitu dira EAJko 5 zinegotziak.

Horren arabera, ERABAKI DA:

**LEHENA:** 2019ko urriaren 16an (1958 sarrera zenbakia) aurkeztutako idatzi-mozioa onartzea.

**BIGARRENA:** Aurrekoaren ondorioz, honako erabakiak onartzea

1. Getariako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzen dugun udalokin elkarlanean, beharrezko kudeaketa egin dezala, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzuak aldundiak kudea ditzan.

régimen de los socorristas, la financiación etc. En cualquier caso al no estar en desacuerdo con el texto de la moción, en cuanto a la carga económica que supone al Ayuntamiento, anuncia que se abstendrán en la votación. Por lo cual, solicita se les facilite información sobre entre otras cuestiones, la subrogación de trabajadores, si se prestaría el servicio por la Cruz Roja, si se abonaría con cargo al Fondo Foral etc.

En nombre de EH Bildu, Ibon Gereka agradece su abstención, sería muy importante para la capacidad inversora de Getaria desprenderse de este gasto, dice que se trabajará con los demás municipios el planteamiento concreto y se llevará a la mesa de playas.

Y sin más se realiza la votación con el siguiente resultado:

- Votan a favor los 6 concejales de Bildu
- Se abstienen los 5 concejales del PNV

Por lo cual SE ACUERDA:

**PRIMERO:** Aceptar el escrito-moción presentada el 16 de octubre de 2019 (entrada nº 1958).

**SEGUNDO:** Como consecuencia de lo anterior, aprobar las siguientes determinaciones:



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

2. Getariako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, hondartzen sorospen zerbitzua udalek kudeatzen duten bitartean, diru-laguntza lerro bat ireki dezala horien % 100ko finantziazioan laguntzeko.
3. Getariako Udalak dei egiten dio Gipuzkoako Foru Aldundiari, Gipuzkoako hondartzetako sorospen zerbitzua kudeatzeko behar diren kontratu edota hitzarmenetan, 11/2014 Foru Araua ezartzeko. Horren bidez, foru sektore publikoko kontratazioan, erosketa publiko sozialki arduratsuari buruzko kontratu klausulak berma ditzan.
4. Getariako Udalak mozio honen berri emango die Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei.

**3.- 2020. URTEAN ERAGINA IZAN DEZATEN ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA ETA DOIKETA EGITEKO IRIZPENA.-**

Ogasuneko arduradunek Udal zerga sistema osatzen duten figura desberdinak aztertu dituzte eta, ikusirik ordenantzen testua, zerbitzu batzuk duten kostea eta hauek, beren aldetik, Tasak edo Prezio Publikoak eragiten dituztela, Ordenantza Fiskalen eta hauek daramatzaten Eranskinen aldaketa eta doiketa, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, proposatu diote Udal Batzarrari.

Banan bana udalaren eskumeneko eta menpeko zerga eta tasen azterketa egin da.

Azterketa honen ondorioz, zerga eta tasa batzuen kuotan aldaketa egitea proposatzen da. Kontutan harturik zerbitzu hauek suposatzen dituzten gastu zuzenak eta horiengatik udalaren sarrerak.

**Nahia Iturbek, EH Bilduren izenean**

**3- DICTAMEN DE APROBACIÓN Y ADECUACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES CON EFECTOS PARA EL AÑO 2020**

Los responsables de Hacienda han estudiado las distintas figuras que constituyen el sistema impositivo local y a la vista de la redacción actual de las ordenanzas, del costo de algunos servicios que, a su vez generan Tasas o Precios Públicos proponen al Ayuntamiento Pleno la aprobación y adecuación de las Ordenanzas Fiscales y sus Anexos siguientes, con efectos de primero de enero de 2020.

Se han estudiado uno por uno los impuestos y las tasas de competencia y administración municipal.

Fruto de este estudio, se propone la variación de algunos impuestos y tasas. Teniendo en cuenta los gastos directos que genera la prestación de dichos servicios y los ingresos obtenidos por estos conceptos por el Ayuntamiento.

**Nahia Iturbe, en nombre de EH Bildu, ha**



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

esan du, 2019/10/16an egindako batzordean esan bezala, ordenantza guztiak KPIk erkidegoan izandako bilakaera ikusita, % 1,5ean igotzea dela euren proposamena.

**Proposatutako aldaketek honako ordenantzatan dute eragina:**

**1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena.**

**2.- Jarduera ekonomikoen gaineko zergarena.**

**3.- Hirilurraren Baloaren Gehikuntzaren Gaineko Zergarena.**

**4.- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergarena.**

**5.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarena.**

**6.- Zerbitzu publikoak eskaini eta iharduerak burutzeagatik tasarena.**

**7.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasarena.**

**Bestetik eta laburbilduz, Ondasun Higiezinaren gaineko zergan, etxebizitzaren gabezia lehen mailako arazoa delako, eta ez dituztelako nahi hutsik egotea, % 50eko gainkarga ezarriko zaie hutsik dauden etxebizitzetara eta tasei dagokionez hilerriko tasak langile publikoen kostearen hazkundeak suposatu duen igoera aplikatzea eta obra handien kasuan, baimenaren izapideengatik 400 € ordaindu araztea.**

expuesto, que como dijo en reunión de comisión de 16/10/2019 proponen, adecuar las ordenanzas, vista la evolución del IPC autonómico, una subida del 1,5 %.

Los cambios propuestos afectan a las siguientes ordenanzas:

1.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles

2.- Impuesto sobre actividades económicas

3.- Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

4.- Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.

5.- Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

6.- Tasa por la prestación de servicios públicos y la realización de actividades.

7.- Tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

Por otro lado y a modo de resumen, proponen que el recargo que se aplica a las viviendas vacías en el Impuesto sobre Bienes Inmuebles sea del 50 % ya que la vivienda es un problema de primer nivel y no quieren que estén vacías, y en cuanto a las tasas que se apliquen a las del cementerio el incremento que ha supuesto el aumento de las retribuciones de los empleados públicos y en el caso de las licencias de obra mayor, aplicar una tasa de 400 € por la tramitación de la licencia.





*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

**Aitor Urrestik bere aldetik eta EAJren izenean azaldu du, ordenantza ideologikoak direla, desindexazio legearen arabera ezin direla aldatu KPIren eskutik, bestela baliogabetzeko arriskua dagoela, eta etxebizitzaren gain 2012an jarri zeneko gaitzaren emaitzen, ondorioen gaineko informazioz ez dutela jaso, beraz, hori gabe bozketan ez direla sartuko.**

**Eta besterik gabe bozketaren egiten da, honako emaitzarekin:**

**Alde bozkatu dute Bilduko 6 zinegotzietatik.**

**Bozketan ez sartzea ezinezkoa delako azkenean kontra bozkatu dute EAJko 5 zinegotzietatik.**

**Eta emaitzaren arabera, ERABAKI DA:**

**LEHENA: Jarraian zerrendatzen diren Ordenantza Fiskalak aldatu, berridatzi edo onartu, aurreko testuak ordeztuz edo berriak sortuz, azaldutako proposamenarekin bat etorri.**

**1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarena.**

**2.- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergarena.**

**3.- Hirilurraren Balioaren Gehikuntzaren Gaineko Zergarena.**

**4.- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergarena.**

**5.- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergarena.**

Por su parte, en nombre del PNV Aitor Urresti opina que son unas ordenanzas ideológicas, que según la ley de desindexación no se puede vincular el cambio a la variación del IPC, ya que se corre el riesgo de quedar anuladas, y sobre el recargo a las viviendas que ya se estableció en 2012, y no tiene información sobre su resultado y efectos, sin la cual, quedarán al margen de la votación.

Y sin más se realiza la votación con el siguiente resultado:

Votan a favor los 6 concejales de Bildu

Al no ser posible quedar al margen de la votación, finalmente votan en contra los 5 concejales del PNV.

Y conforme al resultado, SE ACUERDA:

PRIMERO: Modificar, dar nueva redacción y/o aprobar las Ordenanzas fiscales se relacionan a continuación, sustituyendo a los textos anteriores y/o creando nuevos textos de acuerdo según la propuesta expresada.

1.- Impuesto sobre Bienes Inmuebles

2.- Impuesto sobre actividades económicas

3.- Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.

4.- Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica.

5.- Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

**6.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasarena.**

**7.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasarena.**

**BIGARRENA: Aurreko hauek guztiek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera indarra izango dute.**

**HIRUGARRENA: Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren bosteko 11/89 Foru Arauaren 16.1 artikulua agintzen duena betetzeko, hartutako erabakiaren berri ematen da: Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez eta udaletxeko oholean plazaratzen den iragarki bidez, honela bada espedientea jendaurreko erakustaldian jartzen da, jarraiko arauei jarraiki:**

**Dokumentuak ikusgai daude: Udal honetako Idazkaritza-Kontuhartzailtzan.**

**Aztertze eta kasua balitz, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasitakoa, bulego ordutegian.**

**Erreklamazioa egiteko gaitasuna dute: Uztailaren bosteko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikulua aipatzen dituenak.**

**Aurkezteko tokia: udalaren sarrera erregistroan.**

6.- Reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

7.- Reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

SEGUNDO: Todos los cambios surtirán efecto a partir del 1 de enero de 2020.

TERCERO: En cumplimiento de lo establecido por el artículo 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se ordena la exposición pública de los acuerdos adoptados; mediante anuncio que se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento. El trámite de la información pública se efectuará de acuerdo con las siguientes reglas:

Los documentos se pueden consultar en la Secretaría-Intervención del Ayuntamiento.

Plazo para examinarlos y en su caso para formular las reclamaciones: 30 días hábiles contados a partir del siguiente hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en horario de oficina.

Legitimados para reclamar: Los que relaciona el art. 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

Lugar de presentación: en el Registro General de Entrada del Ayuntamiento.



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

**Nori zuzendu erreklamazioa: Udal Batzarra.**

**LAUGARRENA:** Erakustaldiaren epea inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe igaroko balitz, hartutako erabakiak behin-betirako onartutzat hartuko dira. Erreklamaziorik aurkeztu gero, Udalbatzarrak ebatziko ditu.

**BOSTGARRENA:** Gainontzeko Ordenantza Fiskaleko testu arautzaileak, idatzita dauden bezala mantenduko dira.

**4.- 2018. EKITALDI EKONOMIKOKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.**

**2018ko Kontu Orokorren onarpenerako izapidetutako espedientearen edukiaren berri ematen da.**

**Kontuetarako Berezia Batzordeak, 2019ko irailaren 11n egindako bileran, izapidetutako espedientea onartzearen alde informatu zuen.**

**Kontu orokorra eta Kontuetarako Berezia Batzordearen txostena jendaurreko erakustaldian jarri dira.**

**Espedienteen jasota dago Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2019ko irailaren 17ko datan, argitaratutako iragarkia eta Idazkari-Kontuhartzailean ziurtagiria adieraziz ez dela aurkeztu erreklamaziorik.**

**Eta besterik gabe bozketa egiten da,**

Órgano ante el que se recurre: Ayuntamiento Pleno.

**CUARTO:** Si durante el periodo de exposición pública no se presentaron reclamaciones, los acuerdos adoptados se entenderán definitivamente aprobados. Si se presentaron reclamaciones, se resolverán por el Ayuntamiento Pleno.

**QUINTO:** El resto de las Ordenanzas fiscales reguladoras, se mantendrán en la misma forma en que están redactadas.

**4.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL EJERCICIO ECONÓMICO DE 2018.**

Se da cuenta del contenido del expediente tramitado para la aprobación de la Cuenta General de 2018.

La Comisión Especial de Cuentas en reunión de 11 de septiembre de 2019 informó favorablemente la aprobación del expediente tramitado.

La cuenta general y el informe de la Comisión Especial de Cuentas se han sometido al trámite de información pública.

Consta en el expediente el anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 17 de septiembre de 2019 y el certificado del Secretario-Interventor que declara que no se han presentado reclamaciones.

Y sin más se realiza la votación con el



*Getariako Udala*  
*Ayuntamiento de Getaria*

**honako emaitzarekin:**

siguiente resultado:

**Alde bozkatu dute Bilduko 6 zinegotziak eta EAJko 5 zinegotziak.**

Votan a favor los 6 concejales de Bildu y los 5 concejales del PNV.

**Emaitzaren arabera, ahobatez ERABAKI DA:**

A la vista del resultado, por unanimidad SE ACUERDA:

**LEHENA: Onartzea Getariako Udalaren 2018ko kontu orokorra eta helburu horrekin izapidetutako espedientea.**

PRIMERO: Aprobar la cuenta general de 2018 del Ayuntamiento de Getaria y el expediente tramitado con tal fin.

**BIGARRENA: Euskadiko Kontuetarako Epaitegiari eta Foru Aldundiari onarpen honen berri ematea eta Getariako Udalaren 2018ko kontu orokorraren espedientea igorri.**

SEGUNDO: Dar cuenta de esta aprobación al Tribunal Vasco de Cuentas y a la Diputación Foral mediante la remisión del expediente de la cuenta general de 2018 del Ayuntamiento de Getaria.

**Eta besterik gabe, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, arratsaldeko zortziak eta hamabi minutu zirenean.-**

Y sin más, el Alcalde ordena levantar la sesión, siendo las veinte horas y doce minutos.-

O.E. // Vº Bº  
ALKATEAK // EL ALCALDE

Iz. / Fdo. Haritz Alberdi Arrillaga

i



Dokumentu honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo Interneteko orrialde honetara:  
<https://munigex.net/r/0/39/AAAA2CCB2.Mw02>